



Altsasu

6. zenbakia 2005 azaroa/noviembre

Alsasua



Zelai kaleko lanak, martxorako eginak

Dagoeneko hasi dira Zelai karrika berritzeko lanak. Hori dela eta, obrek irauten duten bitartean, 5 hilabete, eragozpen batzuk sor daitezke. Baliteke, beraz, lanengatik, trafiko norabide batzuk aldatu behar izatea. Hori dela eta, Udalak pazientzia eta ulermen eskatu nahi die altsasuar guztiei.

Zelai kaleko ur sareak berritzez landara, kalearen egitura ere guztiz aldatu da. Lanak egingo dituen enpresa Arian da —Gartzia Ximenez eta San Juan kaleak ere berak egin zituen—. Lanak egiteko epea 5 hilabetekoa da; hortaz, martxorako despeditu beharko dituzte lanak.

Karrikaren erdian oinezkoendako andena egingo da. Hark bi aldeetara aparkalekuak izanen ditu eta aparkalekuaren ondoan 3 metro eta erdiko errepide bana izanen da. San Juan kaleko bidegurutzean eta Isido Melerokoan biribilgune bana jarriko dute trafikoa bideratzeko. Etxebizitzen ondoan espaloiak egingen dira. Horrekin batera, argiteria eta landaretza guztia berrituko da.

Aurrekontua:

Altsasuko Udalak 357.491 euro jarriko ditu, Herri Lan Departamentuak 220.831 eta Toki Administrazioiko Departamentuak 691.770; guztira, 1.270.093 euroko aurrekontua osatu arte.

Ya han comenzado las obras de renovación de redes de saneamiento y abastecimiento, y pavimentación de la calle Zelai. El Ayuntamiento pide comprensión a todos los vecinos de Alsasua por las molestias y desvíos posibles del tráfico para la ejecución de las obras.

La empresa adjudicataria es Arian S.L.—la misma que ejecutó las obras en García Ximenez y San Juan—. El plazo de ejecución es de 5 meses y el presupuesto se sitúa por encima de un millón de euros.

AURKIBIDEA/ÍNDICE

Zerbitzuak/Servicios 2-3

Udal bilkurak: gaiak Plenos: temas tratados 3

Gure gaia/Reportaje UDAN EUSKARAZ 4-5

Berriak/Noticias 6-11

Elkarrizketa/Entrevista: TXARO SAN MARTIN OSASUN ETXKO ZUZENDARIA/DIRECTORA DEL CENTRO DE SALUD DE ALSASUA 12



ENERGIA BERRIZTAGARRIEN TAILERRAK

Norentzat: **haurrentzat**
Eguna: **azaroaren 26a, larunbata**
Ordua: **goizeko 10etatik aurrera**
Lekua: **IORTIA kultur gunea**

Eskulanetan jarduteko gogoia besterik ez duzu behar (haize-errotatxo eta pirograbatua). Tailerrak doanekoak dituzu.

TALLERES DE ENERGÍA RENOVABLE

Dirigido a: **público infantil**
Día: **sábado 26 de nov.**
Hora: **a partir de las 10:00 h.**
Lugar: **Centro cultural IORTIA**

Sólo necesitas ganas de disfrutar haciendo alguna manualidad (molinillo de viento y pirograbado). Los talleres son gratuitos.

Udal zerbitzuak/Servicios Municipales: UDALTZAINGOA/POLICIA MUNICIPAL

TEL.: 629-20 24 14

24 ordu egun guztiak/todos los días 24 h.

2004ko DATUAK/DATOS:

974	informe
194	salaketa
3.598	telefono dei
71	jarduketa ekitaldi sozial eta kulturaletan
567	trafiko jarduketa
31	ibilgailu kentzea
90	jarduketa animalien gaineko
660	jarduketa arazo sozialengatik
116	trafiko istripu (atestatuak)
450	salaketa lapurreta eta jabeagoan sortutako kalteengatik
63	inguramen salaketa
79	jarduketa azoka egunean
59	arazo tabernekien
68	sonometria
1.122	trafiko salaketa/denuncias de tráfico.

laz bildutako dirua: 97.732 €

Son muchas las funciones y trabajos que desempeña la policía municipal. He aquí algunas de ellas:

- Recogida y tramitación de denuncias (malos tratos, problemas vecinales, ruidos —sonometrias—, tráfico, robo, pérdidas, daños a la propiedad, temas ambientales...).
- Canalizar las denuncias a diferentes instituciones (juzgados, Gobierno de Navarra, Ayto., Delegado del Gobierno)
- Tráfico: regulación, atestados y control en eventos deportivos culturales, religiosos y entradas y salidas a los centros escolares.

- Reparto de convocatoria de plenos, comisiones de gobierno, bandos, oficios, denuncias... Servicio de megafonía.
- Control obras (licencias, ocupación vía pública), vados, mercado (ubicación, papeleo, sanidad).
- Apertura y cierre locales municipales.
- Departamento de objetos perdidos: recogida y entrega de objetos.
- Control del aparcamiento para camiones.
- Organización de las señalizaciones de tráfico y control de daños... etc.

Altsasuko Udaltzainen zerbitzuak ez du etenik. Urte osoan 24 orduz aritzen dira lanean. Guztira 10 langile daude: 2 buru, 5 agente eta 3 polizia laguntzaile. Udaltzainek hamaika lan egiten dituzte, ikusi iazko balatzea.

guía de servicios

zerbitzuen gida

012

INFO-LOCAL

TELEFONOAN UDALA DUZU

Altsasuko Udala Ayuntamiento de Alsasua

Udal bulegoak/Oficinas Municipales
948 562 161 / .. 948 562 200
Fax ... 948 563 855

Iortia Kultur gunea/
Centro Cultural Iortia ... 948 564 272

Ludoteka/Ludoteka ... 948 467 471

Centro Altzania Zentrua ... 948 467 594

Emakumearen bilgunea/
Aula de la mujer ... 948 564 823

Gaztedia bulegoa /
Oficina de Juventud ... 948 564785

Bake epaitegia/
Juzgado de Paz ... 948 562860

Liburutegia/Biblioteca .. 948 564 834

Helduen heziketa/
Educación de adultos ... 948 564 831

Kirol Patronatoa/
Patronato de Deportes .. 948 563 410

Igerilekuak/Piscinas ... 948 562 950

Udaltzaingoa/
Policía Municipal ... 629 202 414

Musica Eskola/
Escuela de Música ... 948 564 977

Adinduen egoitza/
Residencia de ancianos .. 948 468 107

Hautzaindegia/
Guardería ... 636 458 016

Sakanako Mankomunitatea/ Mancomunidad de Sakana

Idazkaritza/Oficina ... 948 464 867
Fax ... 948 464 853

Euskara zerbitzua/
Servicio de Euskara ... 948 464 840

Kirol zerbitzua/
Servicio de Deportes ... 948 464 866

Nekazaritza Ganbera/
Cámara Agraria ... 948 567 204

Mendi atala/
Sección de Montes ... 629 480 069

Etxebizitzak zaharberritzeko
bulegoa/Oficina de Rehabilitación
de viviendas. ... 948 576 293

Osasun etxea/ Centro de Salud

Altsasu/Alsasua ... 948 564966

Etzarri (Izargi),
Emakumeentzako sostengu gunea/
Centro de Atención a la Mujer
Etzarri (Izargi) ... 948 567063

Botikak/ Farmacias

Guardia-botikara joan aurretik ondo-
ko telefonora hots egin: 948 226 000

Antes de acudir a la farmacia de
guardia llama al siguiente teléfono:
948 226 000

Gizarte zerbitzuak/ Servicios sociales

Altsasu ... 948 467 662

Larrialdiak/ Urgencias

SOS Nafarroa/SOS Navarra ... 112

Gas Navarra, larrialdiak/
Urgencias, Gas Navarra ... 900 750 750

Suhiltzaileak (Alts)/
Bomberos (Als) ... 948 564 832

Nafarroako ospitalea/
Hospital de Navarra ... 948 422 100

Bideko Ama Birjina Ospitalea/ Hospi-
tal Virgen del Camino ... 948 429 400

DYA (Nafarroa/Navarra) .. 948 171717

DYA (Sakana) ... 948 468 822

Gurutze Gorria/
Cruz Roja ... 948 222 266

Guardia Zibila (Alts)/
Guardia Civil (Als) ... 948 562 004

Garraioak/ Transportes

Errepideetako informazioa/
Información en carretera:
948 237 000 / 948 427 500

Iruñeko bus geltokia/
Estación de autobuses
de Pamplona ... 948 223 854

Noiango Aireportua/
Aeropuerto de Noaín ... 948 168 700

Taxi (Alts/Als) ... 948 467 069

Lan Mundua/ Mundo laboral

Nafarroako Enplegu Zerbitzua/
Servicio Navarro de Empleo
... 948 562 754

AES ... 948 468 307

ELA ... 948 467 338

LAB ... 948 564 175

UGT ... 948 467 120

ALTSASUKO UDAL
ALDIZKARIA /
REVISTA
MUNICIPAL DE
ALSASUA

nº 6. zk.

2005.eko azarora
noviembre 2005

Argitaratzailea /
editor:

ALTSASUKO
UDALA

Garzia Ximenez z/g
ALTSASU 31800
Tel. 948-562 161

Lege gordailua:
NA-945/2004



2005-6-9 *

- 1.- **Modificación del Pliego de Cláusulas Administrativas para la contratación y ejecución de las obras de renovación de las redes de saneamiento y abastecimiento, y pavimentación de la calle Zelai de Alsasua.**
- 2.- **Adjudicación del contrato de asistencia técnica para la redacción del estudio de ordenación y alternativas y Plan Parcial del sector 2 "Arkangoa".**
- 3.- **Aprobación del expediente de contratación para la redacción de los Proyectos de Plan Parcial, Proyecto de Reparcelación y Proyecto de Urbanización del Sector 1 "Zelandi".**
- 4.- **Fijación de los precios de entradas y abonos de las piscinas de Dantzaleku para la temporada 2005.**
- 5.- **Aprobación inicial de la modificación pormenorizada de la U.E. 25 "Zelai" del Plan Municipal de Alsasua.**
- 6.- **Anulación de obligaciones pendientes de pago.**
- 7.- **Designación de Abogado y Procurador para interponer recurso contencioso-administrativo frente a las Resoluciones 1332 del TAN.**
- 8.- **Ratificación de las Resoluciones de Alcaldía nº 34 y 39/2005.**
- 9.- **Aprobación del Convenio de Colaboración con el Departamento de Obras Públicas, Transportes y Comunicaciones para el saneamiento y pavimentación de la c/ Zelai (Travesía).**
- 10.- **Declaración de resolución de la permuta entre el Ayuntamiento de Alsasua y los Sres. García Garrancho y Román Casasola.**
- 11.- **Mociones:** "La voluntad del pueblo por encima de todo" (Aralar).

2005-7-8*

- 1.- **Aprobación definitiva del expediente de Cuentas 2004.**
- 2.- **Aprobación de los criterios lingüísticos para el Área de Cultura.**
- 3.- **Ratificación de la Resolución de Alcaldía nº 49/2005.**
- 4.- **Representación y defensa del Ayuntamiento en el Recurso Contencioso-Administrativo nº 121/2005.**
- 5.- **Mociones:** Política de subvenciones a las Escuelas de Música; Iniciativa Legislativa sobre medidas relativas a la enseñanza entre 0 y 3 años; Instalación de planta de valorización energética en Tudela (IU/EB); Situación en el Sáhara Occidental (IU/EB).

2005-7-29

- 1.- **Aprobación de las incorporaciones de crédito de 2004 a 2005: Expediente nº 1/2005.**
- 2.- **Aprobación inicial del expediente de modificación presupuestaria nº 2/2005: crédito extraordinario (mobilierio bar Frontón Burunda).**
- 3.- **Aprobación inicial del expediente de modificación presupuestaria nº 3/2005: crédito extraordinario (utillaje Dantzaleku).**
- 4.- **Aprobación inicial del expediente de modificación presupuestaria nº 4/2005: suplemento de crédito (Convenios Escuela de Patinaje y Taekwondo).**
- 5.- **Aprobación inicial del expediente de modificación presupuestaria nº 5/2005: crédito extraordinario (Convenio Club Tenis).**
- 6.- **Aprobación inicial del expediente de modificación presupuestaria nº 6/2005: suplemento de crédito (Convenios Etorkizuna y Coral Erkudengo Ama).**

2005-8-24*

- 1.- **Adjudicación de la contratación de las obras de renovación de las redes de saneamiento y abastecimiento, y pavimentación de la calle Zelai de Alsasua.**
- 2.- **Contratación de las obras de ejecución del Proyecto de Urbanización del Sector 3 "Santo Cristo de Otadia" de Alsasua.**
- 3.- **Aprobación inicial del expediente de modificación presupuestaria nº 7/2005: suplemento de crédito (Estudio tráfico).**
- 4.- **Aprobación definitiva del cambio de sistema de actuación de la UE 9 "Divina Pastora" del Plan Municipal de Alsasua.**
- 5.- **Aprobación del Programa de Fiestas 2005.**
- 6.- **Aprobación inicial de la Ordenanza municipal de porches.**
- 7.- **Corrección de errores en el artículo 25 de la Normativa Urbanística Particular del Plan Municipal de Alsasua (UE 11-B-1 "Apeadero").**
- 8.- **Mociones:** Club Atlético Osasuna (IU/EB); Fomento uso compartido del vehículo (IU/EB).

2005-9-9*

- 1.- **Aprobación definitiva de la plantilla orgánica de 2005.**
- 2.- **Aprobación inicial del expediente de modificación presupuestaria nº 8/2005.**
- 3.- **Aprobación del expediente de contratación de las obras de ejecución del Proyecto de Urbanización del Sector 3 "Santo Cristo de Otadia" del Plan Municipal de Alsasua.**

2005-9-30

- 1.- **Aprobación definitiva de la modificación de la UE 25 del Plan Municipal de Alsasua.**

- 2.- **Aprobación inicial de la modificación puntual del Plan Municipal Alsasua, promovida por los copropietarios de Larrainbide 1.**
- 3.- **Aprobación de los nuevos Estatutos de la Red NELS.**
- 4.- **Puesta en conocimiento de Resoluciones de Alcaldía.**
- 5.- **Mociones:** Euskaltegis (Aralar).

2005-10-28

- 1.- **Adjudicación del contrato de asistencia técnica para la redacción de los Proyectos de Plan Parcial, Proyecto de Reparcelación y Proyecto de Urbanización del Sector 1 "Zelandi".**
- 2.- **Modificación del contrato de asistencia técnica para la redacción de los proyectos y dirección de la obra de urbanización de la UE 25 "Zelai" del Plan Municipal de Alsasua.**
- 3.- **Aprobación inicial del expediente modificación presupuestaria nº 1/2005 del Patronato de Música.**
- 4.- **Aprobación inicial del expediente modificación presupuestaria nº 2/2005 del Patronato de Música.**
- 5.- **Aprobación inicial del expediente modificación presupuestaria nº 3/2005 del Patronato de Música.**
- 6.- **Aprobación inicial del expediente modificación presupuestaria nº 4/2005 del Patronato de Música.**
- 7.- **Aprobación inicial del expediente modificación presupuestaria nº 5/2005 del Patronato de Música.**
- 8.- **Rectificación de errores del acuerdo sobre incorporaciones de crédito de 2004 a 2005.**
- 9.- **Puesta en conocimiento de Resoluciones de Alcaldía.**
- 10.- **Mociones:** Colaboración en el Parque de la Memoria (Aralar); retirada de tropas de Afganistán (IU); maniobras del ejército español (Aralar).



abenduarien 10ean IORTIA kultur gunean

Txotxongiloak egiteko tailerra 11:30ean
Arratsaldean pailazoak

euskarazko produktuen erakusketa

ORDUTEGIA: 11:30-13:30 eta 16:30-19:30

El 10 diciembre: muestra para conocer CDs, juegos, libros y productos didácticos en euskara
A las 11:30 taller para niños y niñas; y a la tarde, payasos

Mila altsasuar parte hartzen ari dira udal ikastaroetan

Izen-emate kopurua/Número de inscripciones

GAZTEAK/JÓVENES 2005-04

Asialdiko monitorea	
Monitorado tiempo libre	21
Antzerki tailerra	17
Warhammer eszenografia	15
Hip-Hop	9
Euskal jokoak/juegos vascos	irekita/abierto plazo
Jantziak margotzea	
Pintar textiles	irekita/abierto plazo
Eskuz kuadernaketa	
Encuadernación artesanal	irekita/abierto plazo



Altsasuko Udaleko zerbitzuek 40 jarduera baino gehiago eskaini dituzte aurten (gazteendako 18, helduendako 12 eta haurrendako 11). Udal ordezkariak pozik daude herritarren erantzunarekin.

UDAL LUDOTEKA PARTAIDEAK

4-7 urte/años	62
8-12 urte/años	40
GUZTIRA*	102

* Ez dira behin betiko datuak, partaide gehiago sartzen ari direlako/Los datos no son definitivos ya que todavía se están llevando a cabo más inscripciones.

HELDUAK/ PERSONAS ADULTAS

	PARTAIDEAK	TALDEAK/GRUPOS
Lentzeria	28	
Eho-ziriak/bolillos	23	
Risoterapia	13	
Yoga	45	
Hizketaldi literarioak		
Tertulias literarias	16 *	
Aerobic	66	3
Mantentze gimnasia		
Gimnasia de mantenimiento	80	4
Gimnasia leuna/Gimnasia suave	41	2
Dantza latinoak/Bailes latinos 89>	22	
Dantza latinoak/Bailes latinos 45>	17	
Gaita	2	
Taila	15	
GUZTIRA	368	

KIROL ESKOLAK PARTAIDEAK TALDEAK/GRUPOS

Tenisa	44	3
Saskibaloia/baloncesto	81	9
Futbol z/c-areto f./f.sala	127	9
Irristaketa/patinaje	42	3
Aletismoa	22	2
Pilota	52	6
Txirindularitza/ciclism. 15 (iaz)		
Erremontea/remonte	0	0
HILEROKO KUOTA DUTEN KIROLAK: 4-15 urte/años		
Taekwondo	30	2
Gimnastika erritmikoa	36	2
Psikomotrizitatea	19	1
GUZTIRA	468	

Antolatzaileen iritziz ere aurtengo emaitza ona izan da; alde batetik, jarduera gehienetan aurreko urteotako kopuruak mantendu direlako, eta, bestetik, zenbaitetan, yogan, esaterako, kopuruak gaintitu direlako. Ondorioz, batzuk itxaron zerrendan gelditu dira.

Psikomotrizitateko jarduera egonkortu da. Eskaintzen den bigarren urtea da eta 2 talde egiteko beharra dagoela ikusten da. Hala ere, aukera hori ezinezkoa da Lavaderoako ordutegia bete-betea delako.

Zenbait jardueretan, ordea, zabalik dago izen-ematea, partaide kopurua bete arte. Horixe da hain zuzen ere Emakumearen Bilguneak antolatu bi ikastaroetan gertatu dena. Internet II eta emakumeendako autodefensa ikastaroetarako izena-eman nahi duenak 948-564 823ra dei dezala. Partaide faltagatik bi dira atera ez diren ikastaroak: gaita eta erremontea.

Taila ikastaroa aurten ere martxan

Astearte eta ostegunetan arratsaldetako 5etatik 7ak bitarte 15 lagun arituko dira egurra lantzen. Iaz bezala, Jesus Mari Olmos izango da irakaslea. Klaseak Mojen eraikinean emango dituzte.

Kirol monitoreen lan egoera normaldu da aurten

Hilero kuota kobratzen duten kirol monitoreen egoera egonkortu eta normaldu da aurtengo ikasturtean. Aldaketa hori dela eta kobraketa egiteko modua aldatu da.

Altsasuko Udalaren aspaldiko nahia zen hori. Ondorioz, lehiaketa baterako deia egin zuen. Aurkeztu ziren 5 enpresen artean Hydrak atera zuen puntuaziorik altuena, eta horixe da, hain zuzen ere, monitoreen kontratazioa egiten duen enpresa.

Un millar de inscripciones en los cursos municipales

Sigue abierto el plazo de inscripción para los siguientes cursos: Euskal Jokoak, encuadernación artesanal y pintar textiles; y, dirigidos a mujeres: Internet II y autodefensa.

Más de mil personas de todas las edades están participando en los cursos y actividades organizadas por el Ayuntamiento de Alsasua.

Este año, una de las novedades que ha tenido además un gran éxito, ha sido la escuela de tenis —máxime si consideramos que la mayor parte de quienes participan tiene entre 12 y 16 años, edad en que se abandona de forma alarmante la práctica deportiva. Así para este primer curso la escuela de tenis cuenta con 45 participantes. Los entrenamientos son en el Instituto San Miguel de Aralar I.

Otra de las novedades es el curso de bailes latinos para personas jubiladas. Las clases se desarrollan junto al Cub de Jubilados, en el gimnasio de las monjas los sábados a la mañana. El grupo ya tiene 17 participantes y esperamos que siga aumentando, ya que el plazo de inscripción sigue abierto.

Escuelas deportivas

Las cifras se mantienen respecto al año pasado y en algunos casos han aumentado, lo cual es un dato importante a tener en cuenta ya que en ciertas edades se nota el descenso de la natalidad. Así, más de 475 chicos y chicas de 4 a 16 años de edad están participando en las actividades deportivas de forma continuada este curso.

En este ámbito queremos reconocer y destacar la labor que desempeñan los clubes deportivos, ya que ellos son los encargados de proporcionar el profesorado

necesario para estas escuelas deportivas (mas de 35), así como posibilitar que cada participante pueda competir en cada modalidad deportiva elegida.

Regularizado la situación laboral del monitorado deportivo

Se ha regularizado la situación laboral, del monitorado que imparte clases en el gimnasio lavadero y cobraba las cuotas directamente a los participantes. La empresa Hydra es la encargada en contratar y regularizar esta situación. Así, también se ha cambiado la forma de inscripción a las actividades y el pago a las mismas. El Ayuntamiento es consciente de que, este primer año, será un año de transición donde se analizaran todos los problemas que puedan surgir intentando darles una solución, pero consideramos que a la larga esta regularización será positiva para todos.

En varios, sigue abierto el plazo:

Hasta completar plazas todavía existe la posibilidad de apuntarse a los siguientes cursos:

- **Internet II** para mujeres que hayan asistido al primer curso y **autodefensa para mujeres**. La que tenga interés deberá dirigirse al Aula de la Mujer situado en el Gure Etxea (948-564 823).

El área de juventud ha abierto un segundo plazo de inscripción para los siguientes: **Euskal Jokoak, encuadernación artesanal y pintar textiles**. ¡Anímate!



Un buen número de personas realiza deporte regularmente.

PACTO LOCAL POR LA CONCILIACIÓN

En la vida personal, en el puesto de trabajo y en el hogar... sin dificultades añadidas.

Estamos hablando de conciliación de todos los aspectos de nuestras vidas; de las vidas de todas las personas adultas y su solución requiere abordar todo el "ciclo vital" durante el cual las mujeres y los hombres tienen necesidades y responsabilidades personales y familiares permanentes que necesitan conciliar con su participación social y laboral.

- Hablamos del reto de crear nuevos modelos de empleo para hombres y mujeres que reconozcan las obligaciones familiares y las necesidades personales permanentes de todos los trabajadores y trabajadoras; reto actualmente difícil porque hombres y mujeres tienen empleos en estructuras empresariales masculinas, que presumen que no existen las obligaciones familiares más allá de las de la aportación económica, aunque ya en 1999 se aprobó la Ley de Conciliación..

- Hablamos del cuidado de las hijas e hijos, responsabilidad primera de sus progenitores y de forma secundaria del sistema social

- Hablamos de que el aumento de la esperanza de vida y las modificaciones en la estructura familiar –familias más reducidas, alejamiento geográfico con respecto a la familia extensa– están produciendo un aumento de las responsabilidades familiares con respecto a las personas mayores, a las personas dependientes a lo largo de toda su vida o en un momento determinado (¿Quién no ha necesitado cuidados al enfermar?).

- Finalmente, hablamos de considerar las necesidades personales, de formación, de descanso, de ocio que, especialmente en el caso de las mujeres, tienden a confundirse con las necesidades familiares.

Desde el Ayuntamiento queremos apoyar cualquier iniciativa que contribuya a lograr esta conciliación porque las mujeres tienen pleno derecho a desarrollar su vida laboral sin tener exclusivamente el peso del trabajo doméstico, porque los hombres tienen el derecho y la responsabilidad de la atención y educación de sus hijas, hijos y demás familiares y porque LA SOCIEDAD DEBE RECONOCER LA NECESIDAD DE TODAS LAS PERSONAS DE RECIBIR CUIDADOS EN UN MOMENTO DE SU VIDA Y, POR TANTO, EL VALOR DE LOS MISMOS. SI ESTO ES ASÍ RECONOCEREMOS NUESTRA RESPONSABILIDAD TAMBIÉN EN ESTE TRABAJO Y DEJARÁ DE RECAER ÚNICAMENTE EN LAS MUJERES.

A través de este boletín queremos comunicaros que, a propuesta del Instituto Navarro de la Mujer, estamos trabajando en la elaboración de un PACTO LOCAL POR LA CONCILIACIÓN que recoja el compromiso del propio Ayuntamiento y de distintos organismos para favorecer el pleno desarrollo de toda la ciudadanía de Altsasu.

BATERAGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL ITUNA



LANPOSTUAN, ETXEAN, ESPAZIO PERTSONALEAN... ZAMA GEHIGARRIRIK GABE

Bizitza pertsonalaren, familiarraren eta lanekoaren bateragarritasuna emakumeak eta gizonak ukitzen dituen gaia da eta, konponbidea aurkitzekotan, "bizialdi" jakin baterako erantzuna eman behar da, hots, emakumezkoek eta gizonzkoek behar eta erantzukizun pertsonal eta familiarrak gizartean edo lan munduan parte hartzearekin batera eman behar dituzteneko bizialdia.

Beraz, erronka, alde batetik, gizon eta emakumeentzako enplegu eredu berriak sortzea da, langile guztien beharrikizun pertsonal eta familiar iraunkorrak errekonozitzen dituztenak; beste aldetik, gure bizitzaren une batean edo bestean denok behar dugulako, zainketa lanen balorea onartzea eta kontuan hartzea da; bakoitzak, bai gizonak bai emakumeak, lan honetako ardura bere gain hartzeko.

Udala, Nafarroako Emakumeen Institutuak proposatutako programa baten barruan, BATERAGARRITASUNAREN ALDEKO UDAL ITUN baten alde lan egiten ari da. Itun horrek Udalaren eta hainbat erakunderen konpromisoa bilduko ditu, Altsasuko gizarte garapena bultzatzeko asmoz.



Apustu energetikoa

Argiteri publikoan energia aurrezteko proiektua abiatuko du udalak, eta, ingurumena babesteko, kanpoko argiztapena arautuko duen ordenantza. Altsasuko Udala Ordenantza mota hori bukatzen aitzindaria da.

Iaz, Tokiko Agenda 21 egitasmoaren barruan Altsasurako Akzio-Plana onartu egin zuen udalak. Energia efizientziari eta aurrezpenari lehenetsua eman zioten akordioan, herritarrek beraiek eskatutako lan arloa izan delako.

Argiteri publikoa

Argiterian kokatuko den ekipamendu erreduktore-egonkortzaile baten bidez, argiaren maila jaitsi egingen da aurretik programatutako orduetan (gauez). *"Programatutako gaueko une batzuetan argiaren maila jaisteak ez du esan nahi gauean ez dela ikusiko edo ia ilunpetan geratuko garenik. Horrek ez du bizilagunen segurtasunean ondoriorik izanen. Soilik argiaren maila edo intentsitatea izanen da jaitsiko dena, baina ongi ikusiko da"* adierazi zuen Unai Uhalde zinegotziak, Agenda 21 egitasmoaren ardura-dunak.

Unai Uhalde: *"18 banaketa sare dauzka Altsasuko herriko argien sareak. Argiaren maila jaisteko ekipamenduak 13 guneetan jarriko dira, gainontzekoetan ezin delako. Sistema hau eraginkorra da argiteri publikoan energia aurrezteko. Gainera erraza da ezartzeko, ez da zanga edo zulorik ez aparteko lanik egin behar. Garrantzitsua da sistema honen bidez energia aurreztuko dugula, zerbitzu bera eskainiz"*.

Egitasmo honek 83.000 euroko aurrekontua du eta bi finantzabide nagusi izanen dira: ICO-IDAE hobaridun mailegua eta Agenda 21 Akzio Planak bulkatzeko Nafarroako Gobernuaren linea.

Ordenantza berri bat

Kanpoaldeko argi instalazioek bete beharreko baldintzak zehaztuko ditu ordenantza berriak; bide segurtasunean eraginik izan gabe, energiaren kontsumo arrazionala bultzatuz eta gaueko dizidira maila jaitsiz.

Urtetik urtera kontsumo baxuko argiteri berria erosi du udalak, oraikoa ordezkatzeko joateko. Gabonetako argiteria berritzeko erabakia apustu energetikoaren barruan kokatzen da.



Ahorro y eficiencia energética

El ahorro y la eficiencia energética ha sido el elemento vertebrador de diferentes proyectos y actuaciones promovidas por el Ayuntamiento de Alsasua durante este año dentro del marco de la Agenda 21.

Ahorro de energía en el alumbrado público

Uno de los proyectos acometidos es el Proyecto de ahorro de energía en el alumbrado público mediante la utilización de equipos reductores estabilizadores de cabecera de línea. Estos equipos permiten reducir el nivel luminoso a partir de ciertas horas nocturnas. La disminución o reducción del nivel de iluminación, aporta, además del ahorro energético, una notable reducción del resplandor o de la contaminación luminosa nocturna, sin perjudicar en la seguridad vial.

Hoy por hoy, este sistema es el más eficiente energéticamente y el de más fácil implementación en instalaciones de alumbrado tanto nuevas como existentes por no requerir apertura de zanjas, ni tendido de conductores.

Para comprender la importancia de este proyecto, hay que señalar que el alumbrado público representa más del 50% del consumo de energía eléctrica de todas las instalaciones municipales de un Ayuntamiento.

El presupuesto de este proyecto asciende a 82.980 euros. Las líneas de financiación para acometer son la línea de financiación ICO-IDAE y la línea del Gobierno de Navarra para implementar el Plan de Acción Local de las Agendas 21.

Ordenanza de alumbrado exterior para la protección del medioambiente

Esta ordenanza tendrá por objeto establecer las condiciones que deben cumplir las instalaciones de alumbrado exterior, tanto las existentes como las nuevas, con el fin de mejorar la protección del medioambiente; mediante un uso eficiente y racional de la energía que consumen y la reducción del nivel luminoso nocturno, sin menoscabo de la seguridad vial.

Estas dos prácticas de ahorro y eficiencia energética son la aportación que el Ayuntamiento de Altsasu realiza a nivel local con el objeto reducir las emisiones de CO² y de este modo contribuir a invertir la tendencia del cambio climático. El Ayuntamiento se compromete a ejecutar ambas prácticas para junio del 2006.

Iluminación navideña

Otra de las acciones contempladas para este año pero que tiene un carácter interanual es la progresiva sustitución de los elementos de iluminación navideña existente en la actualidad por otros elementos de iluminación de mayor ahorro y eficiencia energética como son los de hilo luminoso de bajo consumo.

Campaña de sensibilización

El 26 de noviembre se llevará a cabo la campaña en el Iortia. El presupuesto es de 3.000 euros y ha sido presentada a la convocatoria de subvenciones de educación ambiental fuera del ámbito escolar del Gobierno de Navarra. Se espera obtener una subvención del 50%.

Mugikortasun plana

Altsasun, trafikoa berarrantolatzeko azterketa bat egingen da. Azterketa horren bitartez mugikortasun plan bat garatu ahal izanen da herrian (oinezkoendako ibilbideak, aparkalekuak nola antolatu...). Horrela, azterketa horretan zehaztu-

ko dira epe motz, ertain eta luzera begira hartu beharreko erabakiak. Azterketa horren gehienezko aurrekontua 30.000 eurokoa da. Finantziatorako diru laguntza eskatu du Altsasuko Udalak, eta, baliteke % 40koa izatea.

Plan de movilidad

El objetivo es realizar un estudio integral sobre las posibilidades de reordenación del esquema de tráfico, las alternativas de peatonalización y su configuración coordinada. Adicionalmente se analizará la repercusión en el aparcamiento, tanto desde el punto de vista del residente como del visitante. El presupuesto máximo asignado asciende a 30.000 euros, y tendrá una subvención del 40%.

Zelandiko sektorearen garapena

Altsasuko lur eremu horretan berdegune zabalak, zerbitzu guneak eta 200 etxebitza baino gehiago eraikitzea aurreikusten da.

Kirol eraikin berriaren ezaugarriak

Jakina denez, eraikin berria, Zelandiko kiroldegiaren eta pilotalekuaren artean egongo da. Sarrera UE 25 Zelai unitatean sortuko den kale berrian izanen du eta hiru solairu izanen ditu.

Sotoan igerilekuko tresneria egonen da. Beheko plantan, berriz, ondoko hauek: sarrera, taberna, 2 igerileku (bat handia eta beste bat igeri egiten ikasteko), bainuterapia gunea (erlajatzeko igerilekua, sauna hezea, lehorra, hidroterapia saunak...), balioanitzeko gela bat; terraza-solariuma eta 4 aldagela. Solairu hori kiroldegiaren alturan egonen da. Goiko plantan: muskulazioa eta kardiobaskularra lantzeko gimnasioa, spinning egiteko gela bat, 2 aldagela, bulegoak eta bilera gela.

Características de la nueva instalación deportiva

El acceso a la nueva instalación será independiente del colegio Zelandi, así el acceso será desde la nueva calle (de la U.E. 25 Zelai).

La nueva instalación deportiva permitirá unir de forma adecuada las dos existentes: frontón y polideportivo. Para el cual bastará un único control de acceso y distribución hacia el nuevo complejo deportivo. Así las tres instalaciones estarán aglutinadas en una única.

Dotaciones:

La planta baja estará situada a la altura del polideportivo y contará con los siguientes: entrada; oficina de control; bar; zona de piscina (piscina grande (25*12.5) y piscina de enseñanza (12.5*6); área balneoterapia (piscina de relax, sauna húmeda, sauna seca, duchas, hidroterapia y tumbonas); sala competiciones; botiquin / socorrista; sala multiusos (cabina reconocimiento médico, pruebas de esfuerzo...); terraza-solarium y 4 vestuarios.

En la 1ª planta: gimnasio musculación y cardiovascular; 2 sala multiusos; 1 sala de spinning; 2 vestuarios; oficinas y sala reuniones. Y en el sótano estará la maquinaria necesaria para la instalación.

Altsasuko Udalarendako gune interesgarria da Zelandi. Zelandiko sektorea garatzeko lehenengo urratsak eman ditu Altsasuko Udalak aurrean. Hala, Zuazu eta Moneo arkitektoek idatziko dute Zelandiko sektorearen plan partziala, birpartzelazioa eta urbanizazioa, beraiek eskuratu baitute puntuaziorik altuena lehiaketa publikoan.

Egitasmo horretan 235 etxebizitza eraikitzea aurreikusten dira. Kopuru horretatik erdia, 117, babes ofizialekoak izanen dira. Zelandiko sektorearen etxebizitza-dentsitatea, hektareako 40 etxebizitzakoa da.

Lur eremu horretan parke zabala egonen da autobidearen luzera guztian, 16.000 m² zabalera izanen duena; dotazioetako espazioa, berriz, 13.000 m²-koa

izanen da. Gune hori garapen jasangarriaren ideiarekin bideratu nahi du Udalak. Hori dela eta, zenbait irizpide bioklimatiko praktikan jarri nahi dituzte bertan.

UE 25 Zelai unitatea

Zelandi eskola eta okindegia lotuko dituen karrika berri bat zabalduko da, Lanbide Heziketa institutuaren atzetik pasako dena eta etorkizunean igerileku instalira eramanen duena.

Altsasuko Udalak onartu du UE 25 Zelai unitatea urbanizatzeko proiektua. Bertan familiabakarrak eta etxebizitzak eraikina eraikiko da. Eraikiko diren etxebizitzak %50 babes ofizialekoak izanen dira.

Desarrollo del sector Zelandi

El sector de Zelandi dotará a Alsasua de un gran número de viviendas protegidas, gran espacio dotacional y zonas verdes

Son varias las razones de peso por las que el Ayuntamiento ha dado preferencia al desarrollo del sector Zelandi y la unidad U.E.25 Zelai. Por una parte, la urbanización de éstos permitirán la consolidación de una parte del pueblo ya limitada por la escuela, la variante y la calle Zelai. Así, toda la zona gozará de una mayor accesibilidad, incluido el acceso a la zona deportiva y a la nueva piscina cubierta.

Desarrollo del Sector Zelandi

Con el desarrollo del sector una gran parte de la demanda de vivienda será satisfecha. En el sector de Zelandi se prevé la construcción de 235 viviendas, de las cuales la mitad, 117, serán de protección oficial (VPO). Este sector contará, además, 13.000 m² de espacio dotacional, 16.000 m² de zonas verdes y la plaza del espacio público será de 2.500 m².

Además de las razones apuntadas, gracias al desarrollo del sector se podrá financiar parte del montante necesario para la ejecución de la piscina cubierta. Ya que en sectores donde hay mayor número de viviendas, con el mismo suelo se rentabilizan más las infraestructuras y el consumo de energía se reduce a la cuarta parte.


El desarrollo del sector se ha adjudicado mediante concurso público a Zuazu y Moneo. Así pues éstos prestigiosos arquitectos serán los encargados de la redacción del plan parcial, reparcelación y urbanización del mismo. El Ayuntamiento pretende introducir en este proyecto criterios bioclimáticos.

Unidad U.E. 25 Zelai

Esta unidad está situada entre la calle Zelai y las escuelas de Zelandi. Así, se creará una nueva calle que enlazará las escuelas con la panificadora, y dará acceso a la nueva piscina cubierta. En la misma se construirán unifamiliares adosadas y bloque de pisos.

La densidad del sector es de 36 viviendas/ha. y el uso característico es de Vivienda de Precio Tasado, por lo que se posibilitará la construcción de varias viviendas protegidas. Aproximadamente el 50% de las viviendas a construir en el sector será de VPO.

En estos momentos el Ayuntamiento está en proceso de aprobación definitiva para sacar a concurso la adjudicación de la ejecución del proyecto de urbanización. Los solares de propiedad pública destinados a VPO, podrían adjudicarse a principios del año que viene.



Hainbat plano elkartuz egin da ondoko irudia. Bertan, Zelandi inguruan egingo diren lanak ikus daitezke, baita Zelai kaleak hartuko duen itxura ere. Superposición de planos, en la que se muestra una idea de la zona de Zelandi y la calle Zelai. En el plano únicamente se muestran con detalle el nuevo trazado de la calle Zelai y la U.E. Zelai 25. También se aprecia con detalle (en azul) el área que abarca el sector Zelandi.

Zelandiko sektorea. Garatuko den lur eremua.



Hobekuntzak egin dituzte Zuntaipen

200 bizilagun dituen Altsa-suko auzo horretatik pasatzen den errepide, N1 errepidearen bikoiztu ondoren, zerbitzu errepide bihurtu zen. Gasolindegira joateko hainbat kamioik erabiltzen zuten eta oinezkoendako, az-

piegitura faltagatik, arriskutsua zen inguruan ibiltzea. Hori guztia salatu zuten hainbatetan auzokideek. Azkenean, Zuntaipeko oinezkoen sarbidea hobetu da. Herri Lan Departamentuak 80.000 euroko inbertsioa egin ditu. Excavaciones Fresneda enpresak egin ditu lanak.

Lanen lehenengo helburua Zuntaipe auzoa eta Altsasuko hirigunearen arteko oinezko komunikazioa hobetzea izan da. Bigarren helburua, berriz, kamioi trafikoa handi hori murriztu eta ekiditea da.

Iaz, abenduaren hasieran, Herri Lan Departamentuak 5,5 tona baino gehiago dituzten kamioiei Zuntaipetik pa-

satzea debekatu zien, debeku hori zehazten duen seinaleztapena jarritz. Ilbeltzatik aurrera isunak jartzen hasi ziren eta badirudi kamioien trafikoa jaitsi dela.

Egindako lanak

Lanbide Heziketa institutu ondoko biribilean hobekuntza lanak egitea; herria eta Zuntaipe lotzen dituen oinezkoendako bidea prestatzea; euri urak jasotzeko neurriak; N1 zaharretik kamioiak pasatzea debekatzen duen seinaleztapen bertikala jartzea eta behin behinekoa kentzea; auzoko inguru bat argizatzea; lur sail baterako sarrera hobetzea eta ur putzuak ekiditeko neurriak hartzea.

Ya están finalizadas las mejoras en el barrio alsasuarra de Zuntaipe. El Departamento de Obras Públicas ha realizado una inversión de 80.000 euros.

TRABAJOS REALIZADOS: arreglo de la rotonda; realización de un vial peatonal entre el barrio y el pueblo; retirada de la señalización temporal que prohibía el paso de camiones y colocación de la definitiva; colocación de farolas en una parte del barrio; mejora en acceso a una finca y medidas contra el embalsamiento.

El número de camiones que transita por el barrio ha disminuido considerablemente.



Zuntaipeko bizilagunak pozik daude egindako lanarekin, orokorrean kamioien trafikoa asko jaitsi delako.




Puntu arriskutsu horretarako seinale gehiago eskatu dituzte autobiatik sartzen diren ibilgailuei oinezkoen pasabidea dagoela ohartarazteko.

Los vecinos y vecinas de Zuntaipe están contentos con las mejoras realizadas. No obstante quedan algunos puntos peligrosos en los que se debería colocar señalización para advertir la existencia del paso peatonal a los vehículos que acceden de la autopista.

Otadia urbanizatzeko lanak aurki emanen dira

Kontratazio mahaiak AZYSA enpresaren aldeko proposamena aurkeztuko dio udalbatzari. Gune horrek 166 etxebizitza hartuko ditu: 88 familiabakar adosatuta eta 78 etxebizitza, 4 bloketan.



La mesa de contratación ha fallado a favor de la empresa AZYSA para que ejecute las obras de urbanización de Otai. La propuesta presentada por AZYSA asciende a 2.031.099 euros, con un plazo de ejecución de 7 meses. Para que la propuesta sea firme primero ha de ser aprobada por el pleno.

En el sector se posibilitan aproximadamente 166 viviendas, de las cuales 88 serán unifamiliares adosaas y 78 en bloque de pisos. En este sector el Plan Municipal establece un 15% de vivienda protegida.

Ovejas, cabras y aves no han acudido

Ovejas y cabras estaban prohibidas por la agalaxia; asimismo, la exposición prevista de gallos del país fue desautorizada como medida preventiva de la gripe aviar.



Ferialeku kalean 350 zaldi buru ikusteko aukera izan zen. Aurten ez ziren ardiak zen ardirik egon, agalaxia gaitza dela eta. Gainera, hegaztien gripearenganako prebentzio moduan bertan behera utzi zen bertako oilarren erakusketa. Hori bai, oreinak ikusteko aukera izan zen.

Euri arriskua zegoen arren, jende asko eta giro ona egon zen Altsasuko Ferietan. Nekazaritza elikagaien ferian 60 saltoki baino gehiago egon ziren. Horiez gain, Nafarroa eta Errioxako ardo goxoak, baita Idiazabalgo jatorri izendapeneko gazta saltzaile eta ekoizleak ere. Zumalakarregi plaza inguruan, berri, azoka zabal eta anitza egon zen.

Altsasuko Mendigoizaleen 20. argazki rallyan parte hartu zutenek argazki ederrak egiteko aukera izan zuten. Motibo falta, behintzat, ez zuten izan, aipatutakoez gain onddo eta ziza erakusketan zer ikusi eta zer ikasi izan zen eta. Argazki rallyko sariak azaroaren 26an emango dituzte. Agi denez, beraz, Nafarroa Oinez-eko ospakizunarengatik feriak aste betez atzeratu badira ere, ez da nabaritu, jende asko inguratu baitzen Altsasura urriaren 23an.

Baina igandeko ekitaldiez gain, asteburu guztian hainbat ekitaldi egon ziren. Kategoriako pilota partidak, haurrendako jolasak... Peñek ere primeran girotu zituzten herriko kaleak, hezetasunaz blai tsunami bajadikan. Igande arratsaldean, gainera, sargardoa dastatu eta bertsolariak entzuteko parada egon zen plazan.

Ardi, ahuntz eta hegaztirik ez aurtengo ferietan

Auritz arrazako txapelketa morfologikoa

Altsasuko Otai zelaiguneak Auritz edo Burgete Arrazako III. Lehiaketa morfologikoa hartu zuen. Arraza honen jatorria Nafarroako Jaka eta Frantziako zaldien gurutzatetik dator. Duela gutxira arte lan gogorretarako oso baloratutako arraza zen, baina gaur egun haragitarako erabiltzen da. Nafarroako 25 esplotazioko 110 buruk parte hartu zuten aipatu txapelketan, eta krisian dagoen arraza horretako buru onenak ikusteko aukera izan zen. Gogoratu Nafarroan Auritz arrazako 3.800 buru daudela, eta "Nafarroako Jaka" arrazako 480 buru. Azken arraza honetako 10 buru ikusteko aukera izan zen Altsasun. Saritan 7.650 euro banatu ziren. Auritz lehiaketako bururik onena Indart Anaïen "Salvaje" zaldia izan zen, eta herriko saria Juan Antonio Arangizendako izan zen.



Concurso morfológico de la raza Burguete

El III Concurso Morfológico de raza Burguete reunió ayer en Alsasua a los mejores ejemplares de esta raza equina autóctona de Navarra. Acudieron 25 explotaciones de la Comunidad Foral con 110 ejemplares. El origen no muy lejano de esta raza radica en el cruce de la yegua indígena Jaka Navarra con caballos franceses tales como el bretón. Se localiza principalmente en la zona Noreste de Navarra, en los valles Burguete, Arce, Aezkoa y Roncal, aunque también se puede encontrar en el oeste, en la sierras de Urbasa y Andía. Sí bien hasta no hace mucho era una raza muy valorada como animal de trabajo, en arrozales y saca de madera fundamentalmente, en la actualidad su vocación es cárnica. En total se repartieron 7.650 euros en premios. El campeón del certamen fue "Salvaje" caballo perteneciente a los hermanos Indart; el premio local, para Juan Antonio Aranguiz.



25. INAUTEA OSPATZEKO PRESTAKIZUNAK AURRERA DOAZ

Astearte-inauten, egunez parte hartzeko deia egin dute.

Aspaldiko partez, 1982. urtean, momotxorroak, maskaritatik eta bestelako pertsonaiak Altsasuko kaleetan barrena komitiban irten ziren. Herriko kultur eragile batzuen ekimenez, Altsasuko inauteriak berpizteko ideiarengatik bildu ziren AEK-ko ikasle eta irakasleak eta herriko kuadrila batzuk. Urte hartan Momotxorroen dantza sortu berria mustu zuten —horretarako propio Enrike Zelaia sortutako dantza. Gogo eta ilusio handia piztu zen.

Ordutik, 25 urte igaro dira eta urteurrena prestatzen batzorde bat daibil. Herriko hainbat lagunek osatzen dute batzordea, eta parte hartu nahi duenarentako zabalik daude ateak. Orain artean zenbait bilera egin dituzte eta, dagoeneko, badituzte ideia batzuk eskuarte: argazki eta eskulan erakusketa antolatzea, Altsasuko inauteriei buruzko web orria egitea, 25 urteko historia jasoko duen eskuz kuadrinatutako liburua kaleratzea...e.a. Liburua Begoña Salazarrek egingo du, eta, erakusketan, argazkiez gain, haurrek egindako hormairudi eta eskulanak ikusgai jarri nahi dituzte, baita inaute jantziak ere. Ekimen horiek guztiak otsailaren 28a baino lehen bideratu nahi dituzte; baina astearte inauteri eguna bera, festa egun itzela izatea nahi dute.

Gauera itxaron gabe egunez eta arratsalde jendea moztururik irtetzea nahi dute. Giroa sortzeko, beraz, herri bazkaria egitea

pentsatzen ari dira. Eta, jendea animatu dadin, txaranga bat jarri nahi dute goiz eta arratsalde herriko kaleak alaitzen.

Astearte inaute berezia izan dadin bestelako pertsonaiak gonbidatu nahi dituzte, esaterako, Altsasuko momotxorroekin antza handia duten bi hauek: Extremadurako Aceuche herriko pertsonaia edo Hueskako Biescas herrikoa. Azkenean ikusiko da, horiek ekartzea posible izango den, edo beste batzuk etorriko diren.

Orain urte batzuk herriko emakume gazte batzuk antzezutako akelarre itzelarekin gogoratu dira inaute batzordeko kideak, hori dela eta, haiekin kontaktuan jarri eta gonbidatu dituzte orduko akelarrearen moduko zerbait egitera. Hortaz, inaute komitiba plaza iritsi aurretik ikuskizun berezia izango da ikusgai Foruen plazan.

Horiez guztiez gain, ordea, herritarrei parte hartzeko deia egin diete. Bakoitzak bere neurrian: loteria erosiz, batzordean parte hartuz edo ekimenean batean lagunduz... eta, batez ere, astearte inaute egunean berean mozturutz; izan ere, komitiba osoa osatzeko jendea behar da (ezkontzako pertsonaia guztiak egoteko, adibidez).

Aurten, loteria salgai jarri dute

Hau guztia martxan jartzeko dirua behar denez loteria salgai jarri dute. Loteria erosiz beraz, ekimena bultzatu dezakegu, baita astearte inauten torrada gozoak erosten ere. Azken ekimen horri esker egindako diruarekin, materiala erosi ahal izan dute: orain dela 2 urte bi gurdi erosi zituzten, iaz 5 Juantranposo berri egin zituzten. Diotenez, Akeraren larrua guztiz zahartua dago, erabat hondatua.



Animan a salir disfrazados antes: durante todo el día

Mascaritas, juantramposos, momotxorros y sorginas salieron por primera vez en comitiva hace 25 años. La idea de recuperación del carnaval rondaba ya hace años, después de que el grupo de danzas de Galdakao, Andra Mari, sacara a escena un momotxorro en 1974.

Trascurridas las navidades del 81 varios alsasuarras se pusieron manos a la obra. A la iniciativa se sumaron jóvenes y personas del pueblo interesados por la cultura popular, así como alumnos e irakasles de la gau eskola (aek) que participaron en la puesta en escena de ese primer carnaval. El primer año se estrenó la “Momotxorroen dantza” —danza creada por Enrike Zelaia sobre la música aportada por J.A. Urbeltz— en la que muchos ensayaron con ímpetu. Era el momento de saber exactamente cómo atar el ipuruko (jaizkitxo) al cuerpo, como amarrear la crin...ect. Se cumplió el objetivo, los primeros carnavales fueron todo un éxito. Desde entonces, el carnaval de Alsua ha ido creciendo y dándose a conocer hasta llegar a gozar hoy de mucha fama y popularidad.

Animan a la participación

La comisión del carnaval lleva varios meses trabajando en la organización del 25º aniversario. Así, parte de la historia de estos años, se podrá conocer en varios formatos: libro encuadernado a mano, página web, y una exposición fotográfica y de manualidades en el Centro Cultural Iortia.

En cuanto a lo que se refiere al martes de carnaval la Comisión se está planteando organizar una comida popular para animar a la gente a que salga disfrazada antes, a no esperar hasta las 7:00.

Hace unos años un grupo de mujeres jóvenes del pueblo representaron un akelarre impactante antes de que llegase la comitiva a la plaza. Así, la comisión ha solicitado una nueva puesta en escena. Por otra parte, se está estudiando la posibilidad de invitar a otros personajes tradicionales de otros lugares. No obstante, la participación popular será el ingrediente más importante del día. Sin duda, este 25 aniversario será inolvidable.



Astearte inaute otsailaren 28an izango da heldu den urtean. 1995ean ere egun horrekin tokatu zen eta giro polita izan zen.

Argazkia: FERNANDO MORCILLO